

Fedearen ifurburualc

Eleizea ta Biblia

Eleizeak beti begiratu ta gorde izan dau Biblia (Idazti Deuna) ondasun bere-bere lez, eta noznai artu izan dauz biderik egokienak bere seme-alabai ulertu azoteko be. Erroma'ren aginte aldian, erriak, zerbait eskolatuak beintzat, Liburu Santuak entzun izan zituan abots zoliz ortarako aukeratuta egozan irakurleak otseginda. Gitxi ziran, beraz, ontarako erabilliriko kopiak, eta ardura aundiz, jakifia, zainduak. Kopi zarretatik geienak papir-loturetan egozan; baina.. larrutxa edo pergaminao oituran sartu zanean, Konstantino Kaiser'ak berrogetamar kopia egin zituan Biblia osoarenak.

Erromar Agintaldia jausi ta amaitu zanean, eskolatu bako jentea agertu zan ugari, bertatik zugatz aundi lez eginik. Elizgizonak, bakartadeetan bizi ziran lekaide ta lekaimeak batez be, Biblia kopietan jarraitu eben; baifia eleizea laster konturatu zan, au zuzenean irakurtea, etzala fededunentzat ain probetxu aundiko, eta beste bide batzuk billatzen asi eliztarrak Bibliaz jabetu zeitezan. Zeintzuk ete ziran beste bide orreik? Margo-lanak, kuadruak, irudiak, mosaikuak, misterio-antzerkiak, itzaldiak...

Irarkola (inprenta) asmatu ta zabalazi ondoren, Eleizeak, alegin guztiak egin zituan Biblia ezagutua ta maitatua izan zedin. An ta emen eginiko itzulpenak asko ugaldtu ziran; argitalpen nierkeak agertu ziran; Aita Santuak eurak be ainbat eta ainbat karta idazten zituen eliztarrai Biblia irakur egiela agindu ta esanik. Liturjiz erria Bibliari buruz eskalatzen eben, eta azkenez agindu zorrotza etorri zan, kristauak gogarteak meditatino aldiak eta egiteko, Biblia erabilli bear ebela-ta.

Ardura zolia izan dau beti Eleiz Katolikuak Bibliari buruz; onen aurka jagi ta zerbait esan dabenen kontra, jakina, ez dau jan eta eroan al izan ezertxo be. Eleizearen aurka, beronen zerbitzarien aurka, darabillen erakuts-bidearen aurka, Bibliaren kontra nunbait, zer-edo-zer esan edo idatzi ba'da, orren kontra egin dau noz-nai ta nun-nai. Liburu Santuak goi-argiz idatziak izan zirala ezesten dabena be ez dira gitxi izan. Eta guzti onen kontra jagi izan da Eleizea, ori dinoenak errazoi ta zentzun gitxiaz aoa zabaldu oi dabelako, batez be.

Goi-argitua danentz azaltzeari ekin orduko, barriz, ia egiazko liburuak diran ala ez ikusi bear dogula Bibliaren idazletzat jotzen doguzanak idatziak diran ala ez, eta bardintsu uste dogun garai atan idatziak diran ala ez, eta azkenik ia guganaino ezer aldatu barik eldu diran. Gure asmoa ezta oraingoz Testamentu Barriari baino begiratzea, eta batez be lau Ebanielioai. Eta PU jakin nai dogu: egiazkoak eta sinisgarriak ete vakuz Ebanielioak, istorikuak (jazotakoak) eta aldatu bageak?

Lau Ebanielioak, egiazkoak dogug

Egiazko aitz gainean dagoz errotuak gaurko Ebanielio txetuak. Ziur baizen jatorrak (driinalak) dira. eziu bestean; etsaien jo-aldiakaitik, itxas-ertzeko labar antzera dofhiz aren sendo-arriak. Kristautasunaren bigarren gizalditik, ba-da onako kristau-idazleen erreskada ausi-gaitza, argi ta garbi erakusten dauskun lau dirala Ebanielioak idatzi euskuezanak: Mateo, Markos, Lukas eta Jon. Geiago, Ebanielioan bardin iartea zatirik aundiena, lenengo gizaldiko idazle aurrengoak dakarrezan txetu-aitatzeak ikusi ta bardifiean jaritez bakar-bakarrik be. Beste aldetik, latin itzulpenak eta siri-itzulpenak, bigarren

gizaldikoak biak, Ebanjelio bat eta bardina gaur irakurten dogun textuaz.

Kristau etziran idazleai begira, onartu bearrezkoa da bigarren gizaldiko erejeak (sinausleak) Ebanjelioak jatorrak, egiazkoak zirala uste izanik, textua makurazo zarpindu ta ondatu nairik ibilli zirala, orrela irakaste gaiztoa eginaz. Alan eta guzti be, ez eben ukatu aitaturako lau Apostoluak idatzitakoak zirala Ebanjelioak. Bestelan textua aldatzen saiatuko ziran.

Judeguak eurak be ixilla gorde oi eben Kristoren bizitzari buruz. Ezin eben Ebanjelioakaz bat ez etorri, edo-ta zelanbait oneik dinoena iraindu. Al izan ba'lebe, egingo eben ziurrik asko. Orrez gainera, Josef judegu edeslariak Kristo aitutzen dau, Ebanjelioari begira sendo-azo be,

Azkenez lau jentil idazle ospetsuk be, bigarren mendearen lenengoetakoak, ziurtasun ederra damoskue Ebanjelioen jator-tasunari buruz. Plini gazteak, Kristoren ostean 62'garren urte-urtasun jaioak, dinoskunez, Kristoren iainkotasuna izan zan Kris-tautasunak erakusten eban oinarritzko dotrina. Tazito'k bere *Urtekarietan* edesten dau Kristoren eriotza Pontzio Pilato'ren menpean. Suetonio'k, Erroma'ko Kaiser'en bizitzak idatzi eba-zanak, testigantza dagi Kristautasunaren zabalkunde goiztarraz. Kelso'k idazten dau Kristoren iarrailleen kontrako txosten gor-din bat, eta ondo ezagutzen ebala Ebanjelioen istoria, erakus-ten dasku bertan.

Pablo Deunaren idazkietan be ba-dago oindifio argibiderik naiko. Angoai ta emengoai idatzitakoetan noski. eta beste ba-tzuenetan, ia danak lenengo gizaldian idatzita daukaeruzanak; euretatik lautik iru 65'garren urtea baifio lenago eginak dira. Ainbat gauza aitutzen dabez idazleak, edozeinek ezagutu ta sifiistuko ebazalakoan. Eta zelan autortu ete zeikeen au Eban-jelioek egitzat ez eukita? Ebanielioko ainbat nasarte ta idaz-une. gainera, Idaztietan aitatuak artzen dabez.

Esandakoa laburpen ezereza baiiio ezta, kanpotiko argibi-dearen zatitxo bat Ebanjelioak egizko dokumentuak dirala ja-kiteko, Mateo, Markos, Lukas eta Jon'ek Kristo ilda laster ida-tziak. Ezarri oindifio ziurtasunezko agiri, dokumentu oni, textutik bertatik datorkiona. Ebanjelioetan erabillitako izkuntza gerkar

izkera da, orduan Erromar Aginterrian geien erabilten zana, Kristautasunaren asieran, difiot. Aldi berean ba-dago naasteen aramaikoaren kutsu pizkat be, Palestina'ko judeguen izkuntza jatorra.

Jerusalen 70'garren urtean izan zan ondatua. Jazoera au izpirik be ez aitatzeak adierazo nai dausku ori gertatu baino lenago idatziak izan zirala Ebanjelioak, bestela aitatuken eben.

Ebanjelioa, kezka ta aurre-iritxi badaezpadako barik, irakurten dauanak ezingo dau ukatu ezelan be Jesus'en itza, egiten eta adierazten zituan bizitz-uneak, eta esanak, barru-barru-^ tiko zeaztasun askogaz, begi-testiguak edo-ta begi-testiguak esanda jazokunak artu izan dabezanak bakar-bakarrak idatzi eikezala.

Eglazko kondaira dira Ebanjelioak

Gaur-eguneko idazleak dinoenez, Ebanjelioak kondaira dira, istori, nunbait, ez ameskeri. Lukas deunak, esate baterako, onan asten dau berea: «Gure artea jazo diranak, asieratik ikusle ta barri-emoille izan diranakandik jaso doguzanez kontatzen asko ta asko alegindu diran ezkerok, nik be, asieratik guztia zeatz-meatz aztertu dodan onek, zuri, Teofil bikain orri, urresurren idaztea erabagi dot, ikasi dituzun egien sendotasuna ezagutu daizun» (Lk., 1,1-4).

Ziurtasunez betea da Ebanjelioen idazkera; ebanjelariak edestuten dituen jazoerak katolikuak ez diran edestilariak be sendotuta dagdz, Josepo'k batez be. Beste aldetik, arkeologisten aurkitzeak be Ebanjelioen istoriari eusten dautsoe. Adibidez, ia oraintsungo billaketak osorik ziurtatzen dabe Lukas deuna oso zuzenean dagoala Joan Bateatzaillearen garaian Abilina'ko Tetrarka Lisanio zala esatean.

Ebanjelioai zintzotasuna darioe. Or ez dago idazlearen aldetik inori iruzur egiteko asmo-pitifiik. Guzurrea sartzeak ez dakartse ezertariko obaririk. Gogora dakarrez meatz-meatz Kristoren bizitzako jazoera apalak lez aintzagarrak be. Euren buruak beeratzeko diran gauzak bardin ez dabez ixiltzen, ezereen atxaki ta aiko-maiko barik difioskuez. Eta jakintzat ikusten dabe euren

burua (Mat., 13, 16; Markos, 4, 13; 6, 52; Jon, 6, 61); aundikeriz, larguraz eta bekaizkor agertzen dira (Markos, 9,32; Lukas, 9, 46; 22, 24); fede ta kemen urriko (Mat., 26, 40; Markos, 16,13; Lukas, 8, 25), eta Kristok arpegia artu ta alatu bearrean aurkitu ziran (Mat., 15, 32; Markos, 16,13). Gizonen gaifiez, eurak euren bizitzak emon zituen eurak idatzi eben egiaren aide jokatzearren.

Ebanjelioak, osoak eta aid at u gabeak dira

Ebanjelioak alperrik galdu edo au naiz origaitik ondatu ba' litzaz be, laster alkartu leitekezan barriro, lenengo kristau idazleen lanak aipatzen dabezan textu zatiak batu ta alkar joseririk. Aitatze oneik Ebanjelioetan agertzen dira guk gaur ezagutzen doguzan modu-moduan. Jatorretako edo orijinaleko kopia oraindik laugarren edo bostgarren niehdean e^hfiak izan ziran letxe dagoz, eta textuok izanez geuk gaur darabilguzanak bezela. Geiago, itzulpenik zarrenak —bigarren gizaldiko latin eta siriakora eginak, irugarreneko. Koptoak, eta laugarren eta bostgarren mendeko gotikota Armerierakoa— ondoren bardifera garoez. Baita ba-dakigu Eleizeak beti ardura aundiz gorde, jagon eta zaindu izan ditula Liburu Santuak,

Biblia, Jainkoak goi-argituriko itza da

Eleiza katolikuak beti euki izan dauz Idatzi deunak Jainkoak goi-argitutako itza lez, eta bere seme-alaba eliztarrai be orixe eskatu izan dautse, olakotzat artu, ikasi ta erabilli dagiela nainoz ta nainun.

Liburu Santuak eurak bardin, jatorriz jainkozkoak dirala esaten. Testamentu Zarrean naiz Barrian ba-daukaguz pasarte. batzuk, idaz-une batzuk. Jainkoagandik datozenak lez agertzen diranak. Esate baterako: «Eta Jaunak auxe esan eutson Moises'i: Idatzi eizu ori gomutagarritzat liburu batean» (*Urteera*, 17, 14). Eta Jaunak Moises'i au esan eutson: «Idatzi egizuz itzok; nik, ain zuzen be, itzokin egin dot ituna zugaz eta Israel' egaz (*Urteera*, 34, 27). Testamentu Barrian Kristok berak dino Dabidek Espiritu Santuaren egifiez auxe esan ebala: «Jaunak

nire Jaunari esan eutson: Jezar zaitez nire eskumaldean, zure arerioak oinpean jarri dagitzudazan arte» (Markos, 12, 36). Mateo deunaren Ebanjelioan Bera aurkitzen dogu judeguai arpegira botaten ia Jainkoak eurei berba egin eutsela Liburu Santuetan oi ebenaren bitartez: «Ez al dozue irakurri Jaungoikoak esan eutzuen au?» (Mat., 22, 31-32).

Beste aldetik, Testamentu Zarreko idatziak dakar bere egitekoea jainkozkoa dala adierazo nairik be: «Idatziak —dinotse— aztertzen zabiltze zuok, betiko. bizia ortxe aurkituko dozuela uste dozue-ta; ortxe dira bai Nitzaz autor dagienak» (Jon, 5, 39). «Zelan bete bestela, au olantxe jazo bearra dala dinoen Idatziak?» (Mat., 26, 54). «Ezin uts egin dau Jainkoaren berbeak» (Jon, 10,35). Ia aldiz «Idatziak dino» esandia, edo antzekoak sarri erabilliak, Liburu Santuai argi ta garbi ezarten jake jainkozko ospe ta indarra. Eta au egi utsa da, ez baita egia Testamentu Zarreko zatirik txikiena bakarrik. Gure Jaunak ondo agirian adierazten dasku Beratzaz idatzita dagoala «Moises'en legean, igarleetan eta salmuetan», zer guztietan.

Alan eta guzti be, Liburu Santuak goi-argitan idatziak diralako argibiderik bikainena, Paul deunak Timoteo'ri egindako kartan daukagu: «Jaungoikoak argi egindako idatzia gai da, bai erakusteko bai iragartzeko bai korregitzeko bai zuzenean ezitzeko» (Tim., II, 3, 16).

Alanbe, Liburu Santuetako textu orieik gainezka"ta neurritz goitik argiak izan arren, ba'leiteke eurok naiko ez izatea bear bada, gure argibide (argumentu) ta sifiisgarririk aundiena ez izatea, Biblia, Jainkoaren itza goi-argitua dala esateko.

Biblia goi-argitan egina ziurtatu ta erakutsi al izateko, zeatz-zeatz beifiik bein, lenengo ikusi bear da Ebanjelioak kondaira dirala, euren goi-argitzea bazter itxirik. Kondairazko dokumentu ta agiri oneik dinoskue ba-dala Pertsona bat egiazM izan dana, Bera Jainkoa dala dinoskuna, eta au edozein gizonek esan ezin leikezanitzakaz egitztuz; berak adierazo eban bere itzez Berak antolatu ta ipifii Eleiz uts-ezina, mundu onetan gaur be dirauan Eliza.

Kristoren bizitza ta labak ikusi edo ditugu, ba, Kondaira ta dokumentuen bitartez. Aren jainkotasuna egizatzen saiatu gara

bere bizitza ta lanetan erroturik; Eleiza uts-ezina dala gazi-gazan iktisia dogu, Jainko Pertsona onen agintzatik nunbait eta gero itandu dogu Eleiza uts-ezin orrek zer esan dauskun Bibliari buruz. Agustin deunak idazten dau: «Nik ez neuke sinistuko Eleiz katolikuaren agintzariak ortara eragingo ez ba' leust».

Ona zergaitik Eleizeak Batikano'ko 1 Batzarrean dirauskun: «Eleizeak santu ta kanonikar lez daukaz eta zaintzen ditu liburu oneik, ez bakarrik gero giza-antzez eta kemenez eratuak diralako, baita orren gain bere agintaritzak onartuerik daukazalako be; ez goi-agertaldiz indartuak izanik, errakuntza bage dagozalako; Espiritu Santuak ar<ntuta idatziak egonik, euren egille Jainkoa bera daukelako baiio, eta orrelaxe Eleizeari emonak izan ziralako baino».

Aita Santu Leon XIII'garrenak, Bibliari buruzko bere Enziklikan, au idatzi eban: «Espiritu Santuak berak, bere goi-endarrez, eragin eta bultzatu zituan Bibli-idazleak liburu ori idatzi ta osoatzera, eta lagun egin eutsen idaztean eta olan idazleak, Ak argituta, zea'tz-meatz sortu oi eben idaztekoa euren adimenetan; zintzo ta leial jarten eben idatziz Ak arnastu edo goi-argitua, eta izatzean, egi uts-ezinez emon oi eben Jainkoak agintzen eutsen guztia, eta besterik ez; au barik Jainkoa etzan izango Liburu Santuen egille euron osotasunean».

Guk Biblia Jainkoaren itz egiazkoa dala difiogunean. ez doeru esan nai Arek gaur be idazkortzez eta Danerez Berberak idazten dauanik. Adierazo nai dogu Berak argitzen dabezala gfoaseme idazle diferenteak Liburu bereziak idazteko, Biblia OROtzen daben liburu diferenteak ain zuzen< eta Liburu oneik ^°-rak gura dauana, axe bakar-bakarrik idatzi ta euki daan'pn. Bera da egille nausia, Beronen indar bereziz idazten dabelako giza-idazleak idazten daben guztia. Auxegaitik Biblian edozer gauza, uts-ezina dozu.

Oker txikiak, geien baten, egin leikez eta egin oi dira fzeroagoko kopi ta itzulpenetan, baina onek ez dau ezer esan nai Idatziaren mamin-mamifiari begira, Eleizearen baimenez eginak eta, agiriak ikasi, alkar jo ta bardinean ipifii ondoren, alik lasterren arteztuak ba'dira alako utsak.

Goi-argitzearen ondiorenak

Jainkoak berak Liburu santuen edo euron idazleen bidez gizonai itz-egiten ba'dautse, ortik ondorio lez dator, oneik, au da, Liburu santuok, goi-argituak diralako, uts-ezifiak, errakuntza bageak izan bear dabela. Ondorio orixe atera eben antxifia bateko judegu ta kristifiauak, eta Eleiz-Maisutzak be orixe ber'ori "dino Liburu' Santuen uts-ezina argi ta garbi" adieraztean. Orrelaxe Leon XII Fgarrenak, Pio X'garrenak, Benedikto XV garrenak eta Pio XII'garrenak.

Alan be, goi-argitze orren elburua ezta irakastea bakarrik, ezta beraz uts-ezintasuna be bere ondoren bakarra, baina bai lenengoa. Idatzi Deunen toki guztiak, baina, ez dira Jainkoaren itza zentzun ber-berean. Idatz-une bakotxa bereziki jatorra ta egiazkoa jakin ezkeru, Jainkoaren itz uts-ezifietzat euki bear da, Bibli idazleak ortakotzak eukia. Baietz edo ezetz esaten danean daukagu errakuntza. idazleak zelako zentzunez iokatzen dauan. Istoriko gauzetan daukagu au batez be: kondaira ta izadi-zientzietan, zelan jokatu nai izan eban idazleak? Norai-fioko ezaupidea zan berarena gai orreitan?

Bibli-idazleen esanak, itsu-itsuan artu bearrik bage, Kristok berak damosku ontan jokabide naiko argia: Bera da Idatzi guztiaren mamma ta elburua ta ikus bere iokabidea. Frriri zuzentzen dautsozan itzaldi guztietan. erri zeari zuzentzen zanean beintzat, erriko bertako biziera ta gauzak, ikusi ta bizi zituen. lez, jarten dautsez begi aurrean. baina adibide ta zer orrein bitartez Jainkoaren erreinuaren gauzak zeatzago.ta uler-korrago adierazote.ko bakar-bakarrik.

Beraz. Kristogan Ian esian Jainko-issbirituak orrela iokritu ba eban, Biblia idatzi eben gizasemeetan be bardin jokatuko eban ziur asko; idazle areik ez zituan Espirituak bultzatzen gauzen barne-erakundeari buruz gu eskolatzearren; gizori orrein berezko jakituri ta ezaugeraz baliatu zan, izkuntza errez ta aitzeko modukoan, euren garaiko gizaseraeai, Jainkoaren alizatea, jakituria eta onberatasuna adierazteko. (Darraike).

A.O.